



## KANALAK

Study(H)all proiektua online garatzen den zerbitzua den aldetik ez dago banaketa kanaletarako beharrik.

Komunikazio kanalei dagokionez, bi bide nagusi erabiliko ditugu. Alde batetik iragarkiak ordainduko ditugu online beste hainbat plataforma digitaletan zabaltzeko eta beste alde batetik, aurrez aurrekoa. Bigarren hau martxan jarri ahal izateko, lehenik eta behin eskolekin kontaktuan jarriko gara orientazio departamendu eta zuzendaritzara deitu eta gure eskaintza azalduko diegu.

Ikasleekin bi erataria jarriko gara kontaktuan, alde batetik zentroaren baimenarekin geletara joango gara tresna nolakoa den azaltzera. Baita unibertsitate eta ikasketa zentro desberdinek eskaintzen dituzten ferietara ere. Bertan gure standaren bitartez tresnaren berri emango diegu.

Azkenengo horretan unibertsitate desberdineko eta goi-mailako zikloetako eskoletako ordezkariekin hitz egiteko aukera ere izango dugu. Baina zentro horietako departamentuetara deitu eta gure proiektua azalduko diegu eta interesatuta egon ezker, bilerak antolatuko genituzke gure plataforman emango zaion publizitatea nolakoa izango den zehazteko.

Era berean, iragarkiak, bai bideo bat eta baita poster edota panfletoak banatuko ditugu, fisikoki eta interneten ere bai. Bide batez interesatuta daudenentzat onlineko informazio jarduerak ere egingo ditugu, geletan egiten dugunaren antzera baina entzun nahi duen ororentzako eskuragarri.

Salmenta kanalari dagokionez web-gunea bera izango litzateke, harpidetza bertatik ordaintzen delako.



N2J TALDEA